

BASERRIYAN



(USTARITZKO EUSKAL-FESTETAN BIGARREN SARIA IRABAZITAKO MOLDAERA)

AIREA: *Urtzo churiya errazu...*

Bizitutzen naiz mendian
 Bas'erri churi batian;
 Zelai ederrak alde batera
 Baso aundiyak bestian;
 Arkitutzen naiz pakian
 Nagonean bas'erriyan.

Chorichuak ikusirik
 Pozez nago biyotzetik;
 Kantu ederra aditu eta
 Gelditzen naiz alaiturik,
 Choriyak joanik kabitik
 Utzitzen naute bakarrik.

Artaldeak zelayian
 Ikusten ditut goizian,
 Illuntzerako sartutzen dira
 Bildotschoak salechian;
 Poza nere biyotzian
 Dago ayek ikustian.

Jaikitzen naiz ni goizian
 Chorichuak esnatzian;
 Jaungoikoari otoitz egiñik
 Ezkilla aditutuzian,
 Asitzen naiz ni lanian
 Poz ta gogo det aundian.

Segitutzen det lanian
 Gaba etorri artian,
 Zeru aldera begiratu ta
 Sartutzen naiz bas'erriyan;
 Izarrak distiatzian
 Lotaratzen naiz pakian.

Irtetzean eguzkiya
 Pozturik dago guztiya;
 Chori ta bildoch, lore ta sasi,
 Baso, zelai ta mendiya,
 Bai eta ere ibaiya,
 Den-dena dago alaiya.

Intza jeistean zerutik
 Guztiya dago tristerik;
 Mendi-muturra illuna dago,
 Choria dago isillik;
 Triste nago biyotzetik
 Gau illuna ikusirik.

Elizacho bat churiya
 Chiki, pollit, ta garbiya
 Ikusitzen da mendi gaiñean
 Balitz bezela eguzkiya;
 Beti alai ta argiya
 Beti, beti pozgarriya.

BONIFAZIO ECHEGARAY.

